

## Ordiziar eta zarauztar gazteak sarean

INKESTA egin dute Imanol Epeldek eta Maite Goñik irakasle diren eskolatan. Lehenak Zarauzko Antoniano Ikastetxeko 12 eta 16 urte arteko gazteak galdekatu ditu eta bigarrenak Ordiziako Jakintza Ikastolako 16 eta 18 urte artekoak. Segidakoak dira ondorioetako batzuk:

- Egutero Interneten eta telebistan 3,5 ordu egiten dituzte.
- Euskarazko webguneetara 4tik 1 sartzen da eta ez dibertsio bila, eskolako lanetarako gauzak bilatzera baizik.
- %90a sare sozialetan dabil.
- Sare sozialak euskaraz konfiguratuta %35ak ditu. Hori ez egiteko arrazoiak: ez dakite konfiguratzen,

gaztelaniaz hobeto moldatzen dira, ohitura...

– Kaleko hizkuntza bera egiten da sarean.

– Euskarazko webguneak ez dituzte ia batere ezagutzen.

## Ahozko aldaerak mapetan

Euskaltzaindiak argitaratu berri du *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*. Atlasaren helburua da euskararen herriz herriko aldaerak mapetan jasotzea, eta horretarako, 145 herri-tako bizilagunei 2.857 galdera egin dizkiete lexikoaz, morfologiaz, sintaxiaz eta fonetika sintaktikoaz. 4.000 ordutik gorako grabazioak ditu Euskaltzaindiak. Materiala paperean, DVDan eta sarean dago.

## Bermeoko Udala UEMATik atera da

EAJk gehiengo osoz erabaki du Bermeoko Udala Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatetik ateratzea. EAJren hitzetan, ez dute UEMAREN beharrik, udaleko lau teknika-riek egiten duten lanarekin nahikoa delako.

## 'Nabarra' Bilbotik

Iruñean egoitza zuen *Nabarra* hila-betekaria Bilboko NBR elkarteak argitaratuko du ekainetik aurrera. Irati Jimenez izango da zuzendari berria. Jon Orzaiz zuzendari ohiak azaldu duenez, diru sarreraren %90 galdu dute, batik bat 2009an Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak errotik moztu zituelako.



Honelako albisteak egutero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

## TALAIAN

### Bihotzekoak eta langileen suizidioak

Joan den pirilaren 28an, Lanean Osasuna edukitzearen aldeko nazioarteko eguna egin zen Europan. Euskal Herrian, munduko beste lekuetan bezala, sindikatuek bultzatutako ekitaldi, manifestazio eta mobilizazioak egin ziren. Nahiz eta fisikoki bananduta egon, aldarrikapen bakarra egin zen: laneko ezbehar-tasa salatu eta lanean osasuna hobetzeko eskatu. Finantza eta ekonomia krisiak langileen osasuna larriagotzea ekarri du azken bi urteetan: estres gehiago dago, eta lanpostua galdu eta langabeziaren zerrendetara erortzeko aukeraren aurrean, depresioa eta larritasuna sortu da. Larritasuna eta depresioaren arazoei aurre egiteko psikofarmakoen preskripzioak %12 egin du gora. Laneko heriotzen %31 bihotzekoak jota izaten da.

Zerbait larria ari da gertatzen, gure lantokietan eta gure jendartearen, egoera hori ahalbidetzen duena. Langileek eta beren familiek, lan etorkizun ilun eta zalantzarokoaren aurrean, estresa eta larritasuna jasateaz gain, prekaritate, malgutasuna, azpi kontratazioa eta behin behinekotasuna jasaten dute. Horrek guztiak lan ezbehar-tasa handiagoa eragiten du, eta ondorioz, bihotzekoak, hildakoak eta suizidioak. Beraz, bestelako lan eta gizarte eredu behar da, langilea makina beharrean, pertsona izango dena. Horretarako eredu sozioekonomiko berriaren alde egin behar da, enpresen etekin handienak langileek lantokian osasuna edukitzera bideratzeko. Amianto kantzerigenoak bezalaxe, eredu kapitalistak hil egiten du!

Juan Mari Arregi



## BAHEA

Unai Larreategi eta Igone Lamarain EHEko kideek *Berrian* esanak: "Ikerketa soziologikoez diote Euskal Herrian %30 inguru independentistak garela. Baina zer erantzungo genuke ondoko galdera egingo baligute? 'Eta zertarako nahi duzu independentzia?' (...) Zenbatek erantzungo lukete 'herri nortasuna mantendu eta garatzeko, berreuskalduntze prozesua azkartzeko behar dugu euskal estatua' bezalako esaldiren batekin? Egin proba zuen inguruan, eta egiaztatu emaitzak".